

2012-2013 IKASTURTE HASERAKO ESLEIPEN-PROZESUA

Berriro ere, Hezkuntza administrazioak ez du errespetatzen beharrezkoak eta legez dagozkigun oporrak. Gure ezadostasuna adierazi badiegu ere, esleipen prozedura guztia oporretan gauzatuko da.

Beraz, hainbat eginkizunen aurrean, oporraldiko garaian ere zuekin izango garela adierazten dizuegu. Zein egunetan eta non egongo garen berehala informatuko zaituztegu.

AURTENGO BEREZITASUNAK:

- **Eskaera guztiak modu telematikoan irakaslegunearen bitartez egin behar dira.**
- **Bai praktikaldiakoak, bai behin-behinekoak esleipen honetan parte hartu beharko dute; izan ere, finkatzeko fasea bertan egin beharko baita.**

Urtero burutzen diren planifikazio eta langileen prozedura batzuen azken urratsa da ikasturte-hasierako esleipena, eta zuzenean eragiten dio eskola-elkarte osoari.

Esleipen-prozesuan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako zenbait irakasle-lanpostu esleituko dira: behin betiko titularrik ez dutenak edo titularrek betetzen ez dituztenak.

Prozesu horretan, karrerako irakasle funtzionarioek edo lan-legepeko langile finkoek hartuko dute parte, beti ere behin betiko destinorik ez badaukate, edo, baldin badaukate, nork bere lanpostua betetzen ez badute. Horrez gain, prozesu horretan parte hartuko dute irakasleen kidegoetan sartzeko edo hasteko deitutako prozeduretako praktika-aldia egin behar duten irakasleek eta irakasleen ordezkogaien zerrendan daudenek.

2012ko Ekainaren 15-eko ebazpenean argitara eman da 2012-2013 ikasturtearen hasierako esleipen prozesua noiz egingo den, eta zein epe dagoen prozesuko zenbait aukera baliatzeko.

Egutegia eta ordutegia. (Lotura honetan ere ikus ditzakezu.)

Aukerak baliatzeko epeak:

Esleipena egin aurretik, borondatezko aukerak baliatzeko epeak izango dituzte interesdunek. Hona hemen epeak, eta gainontzeko datak:

KARRERA KO IRAKASLE FUNTZIONARIOAK ETA LAN LEGEPEKO IRAKASLE FINKOAK aukera hauetarako:

- Finkatzeari uko egiteko: parte hartzeko eskabide elektroniko bertan aukeratu behar da.
- Beste lurralde historiko batean lanpostua hautatzeko eskabidea egiteko
 - Maisu-Maistren kidegoan: **ekainaren 15etik 21a**
 - Beste irakasle-kidegoetan: **uztailaren 9tik 16era**
- Irakaslegunean lanpostuak eskatzeko epea:
 - Maisu-Maistren kidegoan: **uztailaren 2tik 4ra**
 - Beste irakasle-kidegoetan: **abuztuaren 10etik 14ra**

IRAKASLEEN ORDEZKOGAIEN ZERRENDAKO PERTSONAK

- Irakatsi beharreko lurralde historikoa eta lanaldi-mota aldatzeko eskabidea egiteko.
 - Espezialitate-talde guztietan: **uztailaren 9tik 16ra**
- Irakaslegunean lanpostuak eskatzeko epea:
 - Espezialitate-talde guztietan: **abuztuaren 20tik 23ra**

EPE-KO PRAKTIKALDIA EGIN BEHAR DUTEN PERTSONAK

- **Abuztuaren 9an**: Hautatzeko lanpostuen zerrenda argitaratuko da.
- **Abuztuaren 10etik 14ra**: Irakaslegunean lanpostuak eskatzeko epea

Kontuan hartu:

- **PERTSONA GUZTIEN ESLEIPENAREN BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA ABUZTUAREN 29an ARGITARATUKO DA.**
- **ERREKLAMAZIOAK (IRAKASLEGUNEAN): ABUZTUAREN 30eko 12:00ak ARTE.**
- **ESLEIPENAREN BEHIN BETIKO EBAZPENAK: ABUZTUAREN 31an.**